

Lekurik ez literaturarentzat

Alex Gurrutxaga

Badaude espero gabe *best seller* bihurtzen diren nobelak, literatura gisa onduak izan eta, uste gabe, *best seller*-en pare saltzen direnak –ezaguna da, adibidez, Umberto Ecoen *Il nome della rosa*-ren kasua–. Badaude, beste muturrean, *best seller* gisa ondu arren gutxi saltzen diren liburuak. Eta, azkenik, badaude *best seller* gisa ondu eta *best seller* gisa, alegia asko, saltzen diren nobelak. Kasu horietako bat da *Collini auzia*.

Gauzak argi, halere: literatura-ren eta *best seller*-aren arteko muga lausoa da. Kalitatearen irizpideak eta estetikaren balioespeneak beti eskatzen dute interpretazioa, eta horretan faktore objektibo eta subjektiboek egiten dute bat. Gainera, irizpideok aldatuz joaten dira historian zehar.

Edonola ere, *Collini auzia* ez da mugako lana. Abokatu ezaguna da Von Schirach, Alemaniako kasu judizial sonatuetan parte hartua, eta krimenekin lotutako testuak –beltzak edo– sortu ditu orain arte, hala nola euskarara itzultuta dagoen *Krimenak* ipuin liburua (Erein, 2012).

Collini auzia gorpu batekin abiatzen da, baina intrigaren ga-



'Collini auzia'

Egilea: Ferdinand von Schirach. **Itzultzailea:** Anton Garikano. **Argitaletxea:** Erein.

koa ez da nor den hiltzailea, hori berehala esaten baitzaigu, baizik eta zergatik hil duen bata (Collini) bestea (Hans Meyer). Hasieran iradokitzen zaigu mendeku edo antzekoren bat dela arrazoa, eta amua, beraz, botea geratzen da. Hortik aurrerakoa Hollywoode-rako modukoa da. Abokatu gaztearen goranzko bidea ikusiko dugu, aparteko sorpresarik gabe eta ohiko topikoekin: abokatu beteranoaren eta hasiberriaren arteko tirabira, epaitegiko sekuentzia teatralak, Johanna pertsonaia femenino bakarraren karakterizazio laua, sexu-eszena eta xantaiaren uneak, eta abar.

Nobelaren puntu interesgarria hilketak nazismoaren krimenekin daukan lotura da. Gaiaren mamia ikusita, pentsa daiteke eztabaida etiko edo morala eskainiko zaigula, baina, zoritxarrez, zehaztasun judizialez gain, sakontasun gutxi eta fiabardura are gutxiagorekin jorratzen du egileak ildo. *Best seller*-ak laster lekutzen du literatura.

Formari eta estiloari dagokionez, irakurterraztasuna eta intriga lehenesten dira. Narratzailearen orojakilea da, eta mintzaldiaren ordena kronologikoa ia beti –bi

flash back handi daude–. Gai nontzean, tenpoan laburpena-ko joera ageri da, abiadura eman eta dentsitatea arintzeko. Horrekin lotuta, elkarrizketak ugari dira, eta gutxi, aldiz, deskribapenak. Badago deskribapenetan zerbait lohi edo zantarra ere; izan ere, bi momentutan gutxienez efektismorik merkeena baliatzen du egileak: auto istripuaren eta forentsearen autopsiaren kontaketa –pentsa, hilotzarena da testuko prosopografia luzeena–.

Ezin aipatu gabe utzi itzultzailearen lana. Beharbada zaila izan daiteke halako testu batean itzultzaileak bere finezia erakustea, baina kasu honetan sumatzen da Anton Garikanoren luma, euskara soila eta nahiko neutroa erabiliz, jatorrizkoa baliatzen irakur daitekeen nobela birsortu baitu.

Gure literatur sistemak –ere irakurle masa sendotzeko beharra dauka, eta, askoren iritzi, horretarako beharrezkoa da *best seller*-ak sortu ez ezik beste literaturakoak gurea ekartzeko ere. *Collini auzia* irakurterra eta intriga-koa da, azkar eta buru-neke gehiegirik gabe irenstekoa. Ez dauka, ordea, ez helburu ez osagai artistiko-literarioak.



'Gabriel Aresti Ipuin Lehiaketaren Sariak 2012 eta 2014'

Egileak: Arrate Egaña, Uxue Alberdi, Ekaitz Goikoetxea, Laida Martinez. **Argitaletxea:** Erein.

Gabriel Aresti ipuin lehiaketaren 2012ko eta 2014ko ekitaldian saritutako lau ipuinak jasotzen ditu liburuak. Gai eta estilei dagokionez, askotarikoa da liburua, narrazio bakoitzak bereak dituelako.



'Neguko egunerokoa'

Egilea: Paul Auster. **Itzultzailea:** Oskar Arana. **Argitaletxea:** Txalaparta.

Bere bizitzaren negualdian sartzen hasi zela igarrita, 2011n ekin zion Paul Austerrek bizitza horren kontakizunari, lerro kronologikoari jarraituz, hautzarotik hasita. Kanpoko gertaerak ageri dira, baina bereziki gertaerak utzitako arrastoei erreparatzen die egileak, sentimenduei, barne bizitzaren bilakaerari.



'Baionak ez daki'

Egilea: Bea Salaberri. **Argitaletxea:** Susa.

Narrazio laburrak bildu ditu, 34 orotara, bere estreinako liburuan Bea Salaberri. Egunerokotasunari erreparatzen diote, alde edo moldez, kontakizun gehienek, eta xehetasun txikiak erreparatuz haiengandik adierazkortasunerako indarra eta arnasa hartzen dute.

Eboluzioa

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Jakintza liburu honetan Big-Bang-etik gizaki garaikiderainoko ibilbidea erakusten zaigu. Orri biko bakoitzean pauso kronologiko-ebolutibo bat emanez, ilustrazioek hartzen dute azalera osoa (ia beti), egiantzekotasunaren eta sinplifikazio infantilarren (?) arteko marrazkiekin. Azalpenak irudien gainean ematen dira, gako hitzak kolore bereziki nabarmenduaz.

Jakintza arlo honen ikuspegi orokor bat hartzeko moduko liburua dela esan liteke, baina zientzia liburu batean onartu behar diren hainbat huts ditu, eta ez dut uste itzulpen akatsak direnik (batzuetan bai: «nautilus» ordez «nautile» dager...): «100.000 mila milioi mila milioi mila milioi» (11 orr.) zenbakia ez da existitzen, hori (10³⁰) kintilioi

bat da. Halaber nahasmena sortzen du «Agur ugaztun arrautza-erruleei!» (49 orr.) esaldiak, ugaztun bibiparoen agerpenak ez zuelako obiparoen erabateko desagerepena eragin. Eta, marsupialei buruzko azalpenak motz geratzen dira, gaur egun Ameriketara bizi diren 70 espezieak «ahaztu» egiten baitituzte. Homo generoaren barruko kronologia nahasgarria ez aipatzen. Halere, balekoa dela iruditzen zait, eta zuri?



'Biziaren historia'

Idazlea: Stephanie Ledu. **Ilustratzailea:** Caroline Hue. **Itzultzailea:** Miren Agur Meabe. **Argitaletxea:** Ttartalo.

Krokodiloaren irribarrea

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Zure ustez liburuaren kontrazalean «gaur egungo gizakiaren bakardadearen alegia mamitsua» dioenean, zeini begira idatzita dago liburua? Galdera tranpadun horrekin esan nahi dizut halako obra bat euskal gazte literaturaren gailurra bada, jada ez dagoela mugak ezartzeko aitzakiarik: behingoagatik utz diezaiozun literatura arabera sailkatzeari. Hel diezaiegun beste begi batzuekin liburuari.

Liburu laburra da, lau zapabost orrialdeko hamabi atalez osatua, umorez beteriko giro estresatua erretratzen. Protagonista J.J. da, gizon maniatikoa, eta bizimoduak Krokodiliditis gaitza eragingo diona, larria, baina botikariak

gaztigatzen dioen bezala: «Krokodiliditis ez da gerta daitezkeen gauzetan okerrena». Ez du erraz irten zuloak.

Edizio berri honetan *Krokodiloaren irribarrea* deritzon gehigarria eskaintzen zaigu, liburuaren sorrera, irabazitako sariak eta idazlearen liburuaren gaineko hausnarketak biltzen dituen, testu erdi fikzionatu pare batean.

Argitaletxeak 14-18 urte arteko (?!?) irakurleentzako den Bioleta sailaren barruan argitaratu du.



'Krokodiloa ohe azpian'

Idazlea: Mariasun Landa. **Ilustratzailea:** Antton Olariaga. **Argitaletxea:** Erein.